

BATZAR AKTA 6/2020

Gaia:	Kontratazino lan taldea
Helburua:	Bermeoko Udaleko kontratazioaren espedienteak eraginkorragoak izatea
Data:	2020/06/11
Hasiera – bukaera ordua:	12:02-12:45
Parte hartzaileak:	Naiara Anasagasti (Antolakuntzako AOT), Jurdana Uriarte (idazkaria), Edurne Urrutia (kontu hartzailea), Karmele Muñoa (Idazkaritzako AOT eta lan taldeko koordinatzailea).

Tratatutako gaiak/Ondorioak:

Gaiak:	Ondorioak:
1. Aurreko aktaren onarpena	1. Akta onetsi da
2. Aurreko batzarreko egitekoen jarraipena.	2. –Kutxa aurrerapenen instrukzinoa aztertu eta iradokizunak egin: Argitzeko eta dekretu sinatzeko – Kontratazino Pleguen azken bertsinoa TGBra bideratu onarpenerako: Eginda . – TGBk Kontratazino Pleguak onartu eta gero, zabalkundea egin erabiltzeko: Eginda . – Kontratu aldaketak, luzapenak edo azkentzeak egiteko prozedura Swalen txertatu: Alarma Egoera amaitzen danean . – Kontratazino ireki sinplifikatu, ireki eta harmonizatuetak prozeduretan 17. Fasea kendu: Alarma Egoera amaitzen danean . – Kalte-ordainen eskaria egiteko eredu gainbegiratu: Eginda . – Kontratugilearen Profila prozedura negoziatuera moldatzeko azterketa egin eta, halan bajagoko, eskaria bideratu: Eskaria eginda, erantzuna ezezkoa izan da . – Prozedura negoziatuko pleguak Kontratugilearen Profileko egoerara egokitu: Eginda .
3. Egin beharreko plegu eta eredu aldaketak.	3. Kontratazino zentralerako ereduak moldatu: -Hasierako txostena -Justifikazino txostena.
4. Prozedurak efizienteagoak izateko proposamenak aztertzea.	4. Ez da proposamenik aurkeztu
5. Swal eta Kontratugilearen Profileko eredu jarraipena.ç	5. Swaleko ereduak egunean dagoz. Profilean argitaratu beharrekoen jarraipena ez da egin, baina dinamika moduan ezarriko da une honetatik aurrera.



6. Sail ezbardinetako arazoak bideratzeko proposamenak

6. Ez da proposamenik aurkeztu.

Gai zerrendatik kanpo:

7. Kontratazioa zentralizatzeko proposamena.

7. Proposamena aurkeztu da eta iradokizunak egiteko epea emon da.

Hurrengo batzarra: 2020-07-13 12:00etan.

Bileraren helburuaren betetze maila:

% 100

Deskribapena	Egitekoak:		
	Epea	Erantzulea	Eginda
Kutxa aurrerapenen instrukzioa onartu eta zabalkundea egin.	2020-07-08	Edurne/KarmeLe	
Kalte-ordainen eskaria egiteko ereduaren zabalkundea egin	2020-06-12	KarmeLe	
Kontratazio zentralerako ereduak moldatu (hasiera eta justifikazio txostenak)	2020-07-13	KarmeLe/Nerea	
Kontratugilearen Profileko argitalpenak kontrolatzeko dinamika ezarri	2020-06-12	Naiara	
Kontratazioa zentralizatzeko proposamena aztertu eta iradokizunak egin	2020-06-25	Danak	
Data: 2020/06/11	Akta hartzailea: KarmeLe Muñoa.		Or. 2/2

